



LEGAZPIKO
UDALA



IRAUNKORTASUNAREN EKONOMIA ALDERDIA LEGAZPIN

Hauxe da garapen iraunkorra: egungo belaunaldiaren behar guztiak asetzen dituen baina bere beharrak asetzeko etorkizuneko belaunaldien ahalmena kolokan jarriko ez duen garapena. Brundtland txostena. 1987. NUESTRO FUTURO COMUN.

Ekonomia iraunkorra, bakar-bakarrik, ondoko printzipioak bere egingo dituen zibilizazio-aldaketatik abiatuta lortu ahalko da: gizakiok naturaren parte gara -ez gaude beste espezieen gaitetik-, eta Lurraren administratzaile gara eta ez haren jabe.

Roberto Bermejo. Ekonomia iraunkorra. 2001.



ZER DA, EKONOMIAREN IKUSPUNTUTIK, UDALERRI IRAUNKORRA IZATEA?

Herriko ekonomia bizia sortzeko eta ziurtatzeko konpromisoa hartuko duen udalerrria da; ingurumena babestuz, inbertsioa eta enplegua bultzatuko duen udalerrria.

Honako konpromisoak hartzen ditu bere gain:

Ekonomia ingurumenarekin modu bateragarrian dibertsifikatzea:

- × Jarduera ekonomiko desberdinen sortzea eta mantentzea sustatzea, bai kopuruan bai haiek osatzen duten jarduera-sektoretan.
 - Ingurumenarekin errespetutsua izango den industria-jarduera bultzatzea: minimizatzea, hondakinen bilketa eta kudeaketa, energia berriztagarriak, energia-eraginkortasuna, mugikortasun iraunkorra,...
 - Herriko merkataritza-jarduera sustatzea eta zerbitzu kalitatezkoak eta iraunkorrak.
 - Tokiko turismo iraunkorra sustatzea.
 - Lehen sektorea bultzatzea eta, modu berezian, nekazaritza ekologikoa.
 - Baso-ekoizpen iraunkorra bultzatzea.

Ekonomia-jardueretan ingurumen-irizpideak sartzea:

- × Ingurumenaren kudeaketa bultzatzea eta ekonomia-jardueretan ingurumenarekiko jardunbide egokiak har daitezela sustatzea.
- × Ekonomia-jardueretan natura-baliabideak modu eraginkorrean erabil daitezela bultzatzea.



**LEGAZPIKO
UDALA**



- × Jardueren kokapenean iraunkortasun-irizpideak sartu: lurzoru degradatuak eta/edo aurretik urbanizatutakoak berreskuratzea ...
- × Legazpiren garapenerako garrantzitsuak diren azpiegituren sustapenak sor dezaketen gizarte-eta ingurumen-inpaktua ebaluatzea; horretarako, aukera desberdinak aztertu behar dira eta ingurumena eta herritarren bizi-kalitatea errespetatuko duen aukeraren alde egingo da.

Enpleguaren kalitatea bultzatzea:

- × Enplegu egonkorra, kalitatezkoa eta ongi ordaindutakoa sor dadila sustatzea.
- × Enplegua lortzeko zailtasunak dituzten kolektiboen lan-merkaturatzearen alde egitea: ezgaitasunen bat duten pertsonak, epe luzean lan gabe daudenak, prestakuntza gutxiko pertsonak, etorkinak, emakumeak, gazteak,....
- × Herriko enplegua eta autoenplegua sortzea eragingo eta bultzatuko duten neurriak hartzea, herriko ekonomia sendoa eta ez mendekoa lortzeko.
- × Garapen iraunkorarekin lotutako etorkizuneko lanbideak eta jarduerak aurreratzea, bestelako jarduera ekonomikoetara eta enpleguetara igarotzea ahalbidetuz.

Toki-merkatu iraunkorra sustatzea:

- × Herriko jarduera ekonomikoekin lan egin praktika korporatibo onak sustatzeko eta ezartzeko.
- × Enpresen arteko lankidetzak sustatzea estrategia eta baliabide komunak erabiltzeko.
- × Herriko eta eskualdeko kalitatezko produktuen merkatua sustatzea.
- × Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak sustatzea.
- × Bidezko merkataritza bultzatzea.

Udalaren kudeaketan iraunkortasun-irizpideak sartzea:

- × Udalaren kudeaketa ekonomikoan aurrezteko irizpideak ezartzea.
- × Gastu publikoa finantzatzeko zorpetzea saihestea, etorkizuneko belaunaldiak gure egungo gastua finantzatu beharra izan ez dezan.
- × Iraunkortasunarekin bat datozen jokabideak sarituko dituzten politikak ezartzea.
 - Iraunkortasun-irizpideekin ekoiztu eta kontsumitzen lagunduko duten sentsibilizazio-kanpainak egitea.
 - Iraunkortasunaren aldeko jokabideak sustatuko duten zerga politikak ezartzea.
 - Jokabide iraunkorrei derrigorrezkotasun-izaera emango dieten arauak onartzea.
 - Herritarren jokabide iraunkorrak sustatuko duten baliabideak eta azpiegiturak eskaintzea.

2007ko maiatzak